


**MEMORIA - 4. edizioa**

**love**

**be veggie!**

**Euskadiko jaialdi beganoa**



# INFORMAZIO OROKORRA

## DATU OROKORRAK

Edizioa: 4

Data: 2022ko abenduak 3-4

Bisita kopurua: 4.754

Enpresa erakusketari kopurua: 54

Erakusketa eremua: 401 m<sup>2</sup>

Ordutegia: larunbata 10:00etatik 20:00etara, igandea 10:00etatik 20:00etara

Web-gunea: [beveggie.eus](http://beveggie.eus)

Be Veggie-ko laugarren edizioak honako datu orokorrak izan ditu:

**54 erakusketari**  
**4.754 bisita**

Sarrera doakoa izan da, aldez aurretik izena emanda, bai online azokaren aurretik edo bertan jaialdira iristean. Ekitaldia hasi baino lehen erregistratutako pertsonetatik %44a bertaratu da ekitaldira.



# ERAKUSKETARIAK



## ERREPRESENTATUTAKO SEKTOREAK


2022KO edizio honetan **54 erakusketarik** hartu dute parte. Enpresa eta elkarte hauen artean, sektore hauen partehartzea nabarmena izan da:

- 23 enpresa jatorri %100 begetala duten edari eta janari arlokoak
- 14 enpresa kosmetika eta osasunaren arlokoak
- 4 enpresa osagarri eta arropa arlokoak
- 9 santutegi eta elkarte

(gainontzeko enpresa/erakundeek sektore hauetatik etorri dira: turismoa eta erakundeak, animalientzako janaria, liburudenda)

## JATORRIA

Erakusketarien jatorria aztertuz, parte hartu duten enpresa eta erakundeen %45a Euskadi eta Nafarroatik datoz, gainontzeko %55a estatuko beste erkidegoetatik eta Frantziatik etorri dira, azken honetatik totalaten %12a izanda.



## ASEBETETZE MAILA

erakusketarien

**%94**  
azokaren  
emaitzekin pozik  
daude

*Erakusketarien %94a azokaren emaitzekin pozik edo oso pozik daude. Hauen %87ak jaialdiaren hurrengo edizioan partehartzea errepikatuko luketela baieztatu dute.*





## FAKTURAZIOAREN INGURUKO DATUAK ETA BISITARIEN BATEZBESTEKO GASTUA


Bisitarien artean egindako inkestan jasotako datuen arabera, honako ondorio hauek lortu ditugu:

Bisitarien batezbesteko gastua azokan 52€ izan dira.

Inkesta honetan jasotako datuen arabera, azokan salmenta zuzena egiten ari ziren erakusketariak batezbesteko fakturazioa 3.997€-takoa izan zela estimatu dezakegu. Kontutan izan behar da, salmenta hauek soilik azokan zehar egin zirela, beraz, ez ditu kontutan azokaren ondoren egingo diren salmentak, azokari esker sorraraziko marka eta produktuen inguruko ezagutzaren ondorioz.

***Azokan salmenta zuzena egin zuten erakusketarien fakturazioa 3.997€-takoa izan dela estimatzen dugu.***





# EGITARAUA ETA JARDUERAK

Be Veggie-ko bi egunetan zehar **28 proposamen jarri dira bisitarien eskura**, eta 1.415 pertsonak gozatu ahal izan dituzte.

**BERRIKETAN** | hauxe hitzaldietarako gunea da, eta baita eguerdiko DJ sesioak eta arratsaldeko kontzertua ospatu den gunea. Ereku honen dekorazioa Emaús Fundación Social-ek egin du, ekonomia zirkularren printzipioak kontutan hartuz. Gai desberdinak jorratu dira hemen: elikadura %100 begetala, Animalien Zuzenbidea, animalia basatien salbamendua eta plant based elikaduraren arloko tendentzia berriak, besteak beste.



**SUKALDEAN** | showcooking-ak egiten diren gunea, non bisitariak sukaldariek prestatu-tako janaria dastatu ahal izan duten.






**ZOKKETAK |** aurten 4 eroketa bonu zozketatu dira, bakoitza 100€-takoa, azokako produktuetan gastatzeko.



**HAURRENTZAKO JARDUERAK |** Jaialdiaren edizio honetan haurrei zuzendutako jarduerak gehitu ditugu, familien bisita erraztu eta hareagotzeko asmoarekin, etxeko txikiak ondo pasatzeko gune bereizi bat sortuaz. Horretarako, marrazketa tailer bat izan dugu jaialdian, non umeei animalien marrazkiak margotu ahal izan dituzten, eta taldeko mural bat margotzeko aukerarekin ere. 172 haur pasa dira haurrentzako marrazketa txoko honetatik azokan zehar.





**YOGA DAY** | igandean 11.00etan Vinyasa Flow praktika saioa ospatu da, María Eskitxabel-en eskutik. 60 pertsona parte hartu dute klase honetan.



**TXOKOLATADA** | larunbata 17.00tan Donostia Maitiana Bomboneria-ren eskutik. 200 txokolate begano razio banatu ditu, Irri Sarri-k eskeinitako edalontzi berrerabilgarrietan. Partehartze handia izan duen jarduera izan da, eta elkartzeko puntu bat sortzearen helburua bete du.



**KOSMETIKA NATURAL TAILERRAK** | Jaialdiaren bi egunetan zehar, Recicla Birziklatu elkarteak DIY kosmetika natural tailerrak eskeini dituzte, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Obra Hidrauliko departamentuaren stand-ean. 50 pertsonak gozatu dute tailer hauetaz, non partehartzaileek ezpainetarako baltsamo bat eta labandazko krema bat prestatu duten.



**MIKROPLASTIKOAK EZAGUTZEN TAILERRA** | Mater-en laguntzarekin 12 urte baino gehiagoko pertsoneri zuzenduriko tailer hau eskeini da, mikroplastikoen inguruko ezagutza areagotzeko. Be Veggie-ren ardatzetako bat jasangarritasuna izanik, jarduera hau egitaraura gehitu da, gure itsasoetan dauden mikroplastikoen inguruan informazioa zabaltzeko asmoarekin. Jarduera hau larunbatean 17.30tan ospatu da.





## FASHION REVOLUTION ERAKUSKETA |

Be Veggie eta Fashion Revolution Euskadi-ren arteko kolaborazioari esker, Be Veggie-ko bisitariek gehiago ikasi ahal izan dute moda industriari buruz eta honek ingurumenean duen inpaktuari buruz, eta nola moda jasangarria honi aurre egiteko aukera bat izan daiteken.

Erakusketa bi ataletan banatu da: lehena, moda jasangarriaren industriako terminologiari eta kontzeptuei buruzkoa, eta, bigarrena, modaren industriarako erronka handiena duten GJHetako 4 eta helburu bera lortzeko lan egiten duten enpresa, erakunde eta zentro batzuk: moda berde eta garbia. Good Clothes Fair Pay, Bcome, SKFK, Tytti Thusberg, Koopera, Basque Design Center.

Zoritxarrez, modaren industria da ekoizpen-katearen barruko kutsatzailerik handienetakoa bat eta desberdintasun sozialak, murriztu beharrean, handitu egiten dira. Bi planeta izango bagenu bezala bizi gara, 2050erako 10 mila milioi pertsonako iragarpenarekin. Baliabide mugatuak ditugu, eta dagoen lurraldeak mugatzen gaitu. Moda ezin da hortik kanpo geratu.

“Planeta suntsitzen ari garela dakien lehen belaunaldia gara, eta horri buruz zerbait egin dezakeen azken belaunaldia”.





## TXAKURREKIN SARTZEA |

Be Veggieren edizio honetako berrietako bat txakurrak azokara sartu ahal izatea izan da.

Lehen aldiz, bisitariak bere txakur lagunekin batera etorri ahal izan dira. Bisitariak hori eskatu izan dute aurreko urteetan, eta aurten egia bihurtu ahal izan da.

100 txakur Be Veggie-ra sartu direla zenbatu da, eta kopuru horrek publikoaren nahia frogatu du.

Erakusketazokaren kanpoko aldean gune bat prestatu da, txakurrek beren beharrak bete ahal izateko. Antolakuntzak poltsak jarri ditu jasotze lana errazteko, eta, horrez gain, prestaturiko espazioaren garbiketa orokorra egin da, ahalik eta garbien mantendu ahal izateko.



# ERRONKA GARBIA

Hasieratik, Be Veggie-k jasagarritasuna izan du ardatz bezala, bai egitarauaren edukiei dagokionez, bai ekitaldiaren kudeaketan. 2021ean Be Veggie-k ERRONKA GARBIA zigilua lortu zuen lehenengo aldiz.




**ERRONKA GARBIA**  
EVENTO AMBIENTALMENTE SOSTENIBLE

Be Veggie 2022-k zigilu hau lortzeko asmoa du ere, ingurumenarekiko jasagarria den ekitaldi bat ospatzeko erronka onartuz. Zentzu honetan, hondakinen kudeaketa eta murrizketa eta bisitarien mugikortasunaren inguruan ezarri dira helburu nagusiak.

Erronka Garbia zigilua lortzekotan, **Be Veggie-k hau lortzen duen bigarren aldia izango litzateke**, bizimodu eta kontsumo jasagarria goraipatzeaz gain, **eredu jasagarriak jarraituz antolatzen den ekitaldia dela erakutsiaz**.

## BISITARIEN MUGIKORTASUNA



Grafikoak Be Veggie-ra bertaratutako bisitarien mugikortasunari buruzko informazioa eskeintzen du: %50a partekatutako kotxean etorri da, %24a oinez ala bizikletan, eta %15a garraio publikoan.

## HONDAKINEN MURRIZKETA ETA KUDEAKETARAKO AKZIOAK

Hondakinen sorkuntza murrizteko akzioen artean, Irri Sarri-ren laguntzarekin egindakoa nabarmendu nahi dugu. Larunbata abenduak 3, txokolatada begano bat antolatu genuen, eta edateko txokolatea banatzeko, Irri Sarri-ren edalontzi berrerabilgarriak erabili ziren.

IRRI  
SARRI



***Honekin, erabilera bakarreko 200 edalontziren erabilera saihestu da.***

Basque Circular Summit ekitaldirako erabilitako biniloa berrerabili egin genuen, Be Veggie-ko irudiarekin integratuz.



Honetaz gain, bisitarien hondakin kudeaketa errazteko kontenedore kopurua haunditu egin da, eta erakusketarien hondakin kudeaketa eremuan seinalizazioa hobetu da.



Espazio desberdinen dekoraziorako elementu berrerabilgarriak erabili dira, kolorezko banderinak eta bionboentzako oihalak esate baterako. Aipagarria da Emaus-ek egindako interbentzioa "Berriketan" eremuan, berrerabilitako altzariak erabiliz egin dena. Eredu honetan Endanearen laguntza izan dugu ere landareen dekorazioarako, ekitaldiaren ondoren bere funtzioa egiten jarraituko dutenak.





# ANTOLAKUNTZA ETA KOLABORAZIOAK

Ficoba-ko lan talde profesionalak antolatzen du Be Veggie, Eusko Jaurlaritzaren Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Departamentuaren laguntzarekin.

Gainera, Be Veggie-k honako hauen kolaborazioa izan du: UVE (Unión Vegetariana Española), ProVeg, Vegana, Fashion Revolution Euskadi eta Euskotren.

## Antolatzailea



## Babesten dute



## Laguntzen dute



Gipuzkoako moda jasangarriaren Klusterraren partehartzea nabarmendu nahi dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Departamentuko parte dena. Foru Aldundiaren departamentu honek Be Veggie bere lana hedatzeko plataforma bezala ikusi du Wave Back Project marca eta Recicla Birziklatu elkartearen partehartzea erraztuz. Espazio honetan kosmetika natural tailerrak egin dira.



GIPUZKOA KLUSTERRA  
GIPUZKOA MODA JASANGARRIAREN KLUSTERRA  
CLUSTER GIPUZKOANO DE MODA SOSTENIBLE

WAVE BACK  
PROJECT



## PROVEG-ekin ELKARLANA



ProVeg elikaduraren inguruan kontzientziatzeko gaietan lan egiten duen nazioarteko erakunde aitzindaria da, lau kontinentetan lan egiten duena.

ProVeg-ek modu eraginkorrean lan egiten du gobernuekin, erakunde publikoekin, enpresa pribatuekin, profesional medikoekin eta herritarrekin, barazkiak lehenesten gizakiarentzat, animalientzat eta gure planetarentzat jasangarria den ekonomia bat lortzeko bidean laguntzeko.

Be Veggieren ospakizunean, ProVegetik hainbat elkarrizketa egin zaizkie jaialdia bisitatu zuten pertsoneri, eta hona hemen ateratako ondorioetako batzuk:

-Jendeak, oro har, badaki elikadura begetala jasangarriagoa dela, baina ez da guztiz jabetzen orojalea izatetik dieta % 100 begetalera pasatzean ematen den CO2 isurien murrizketaz: **Landare-elikadurarekin, CO2 isuriak % 71 murriztuko lirateke.**

-Orokorrean, haragi ekologikoa modu industrialean ekoizten dena baino jasangarriagoa dela ulertzen da. Honen ondorioz, asko harritzen du jendeak honako hau jakiteak: **haragi ekologikoaren ustiapenak lurzoru eremu handiagoa behar du (%42 gehiago) eta CO2 isuri gehiago sorrarazten ditu 8%28 gehiago) haragi "industrial" baino.**

-Elikadura orojale batetatik elikadura %100 begetal batetara pasatzeak zenbat ur aurreztu dezakeen jakiteak harrigarria izaten da orokorrean jendearentzat. Elkarrizketetan zehar hau galdetu zen: zenbat aldiz bota dezakezu komunetik behera aste betean aurreztutako urarekin, elikadura aldaketa hau egitean. **Aldaketa hau eginda aurreztutako urarekin komunetik behera 514 aldiz bota daiteke.**

-Zifrarik deigarriena eta ezjakinen (eta baita gutxietsia) urtero jaki bilakatzeko hil egiten diren animalia kopuruarena da. Jendearen ideia orokorra zifra hori milatik - miloi batzuen bitartekoa dela da, baina, benetako kopurua **75.000 milioi hildako animaliena da.** Jendea kopuru honekin asko kezkatu egiten da, eta hauek bakarri lurreko animaliak kontutan izanda da, urpekoak hainbeste dira bakarrik tonetan kontatzen direla.

-Tonu positibo batean esan daiteke, jendeak, nahiz eta elikadurak ingurumenean duen inpaktuaren inguruko jakinduria eskasa badu ere, orokorrean argi dago honen inguruko hezkuntza eta kontzientziazioa zabaltzea beharrezkoa dela, eta elikadura %100 begetala krisis klimatikoaren aurka egiteko irtenbideetako bat dela aldarrikatzeko beharra antzematen da ere.

Aipatzen diren datuen jatorria: ProVeg-ek egindako ikerlana: Más allá de la carne.




Aipatutako elkarrizketaz gain, ProVeg-ekin egindako elkarlanaren hildoan, Verónica Larco-k, ProVeg-eko Komunikazio zuzendaria, egitaraueko hitzaldi batean parte hartu du, zehazki animaliak laguntzeko komunikazio efektiboaren inguruko mahai inguruan, Rocío Cano eta Miriam Jiménez Lastra-rekin batera.




# BISITARIAK

## BISITARIAK | JATORRI OROKORRA



Azokara bertaratutako publikoaren %78a Gipuzkoatik etorri dira, Frantziako Hego Mendebaldetik etorritako %7arengatik jarraitua. %12a Bizkaia, Araba eta Nafarroatik etorri da, eta %4a estatuko beste eskualdeetatik.


## GIPUZKOAKO BISITARIAK | ESKUALDEKAKO BANAKETA






Be Veggie-n zehar, bisitariari inkesta bat psazae, bere feedback-a jasotzeko eta baita bisitarien profila ezagutzeko. Hauek dira jasotako datuetako batzuk:


### Beganoa zara?




### Zenbat diru gastatu duzu?




### Zein da zure adina?



### Jaialdiarekin asebetetze maila orokorra



Jaildira bertaratutako publikoaren %51a ez da beganoa, jaialdiak beganoak diren pertsonak haratago erakartzeko duen indarraren islada, eta era berean beganismoa hedatzeko potentziala erakusten du. Bisitarien %67a 45 urte baino gutxiago ditu, eta etorritako %80a zerbait erosi du bere bisitan zehar. Nabarmena da, %35ak 50€ baino gehiago gastatu dituela. Bisitarien %68a jaialdiaren edukiarekin pozik geratu dira.



# PUBLIZITATEA ETA PROMOZIOA

## PUBLIZITATEA KALEAN

- 2.200 kartelen kokapena honako hirietan: Donostia, Irun, Orereta, Hendaya, Bilbo, Gasteiz, Bergara eta Pamplona, kontutan hartuta bereziki jende gaztearen topagune edo pasaguneak (unibertsitateak e.a)
- Euskotren: ticket salmenta makinetan irudia eta Bilboko Alde Zaharreko geltokiko pantailan bideoa
- Tolosa hiribideko pantailan bideo-iragarkia
- 32 MUPI Irunen
- Hondarribia eta Bilboko aireportuetan irudia promozio turistikorako pantailatan



## POSTAZKO BIDALKETAK ETA MAILING KANPAINA

- Posta bitarteko bidalketa Euskadiko 120 denda/ beste merkatalgune espezializatueta-  
ra, turismo bulego eta jatetxe beganoetara
- Mailing kanpaina (mailchimp): 6 newsletter (bisitari orokor eta profesionaleri zuzendu-  
ta) azaroan zehar eta abenduak ekitaldia baino lehen 20.000 kontaktu berezi baino  
gehiago dituen datu basera.





# PRENTSA ESPEZIALIZATUA

## EDIZIO FISIKOAK:

-Bioeco actual + Bueno y Vegano 6 insertzio, iraila, urria eta azaroan zehar, eta Bueno y Vegano-ren azalean abenduan.

-Vida Natural

-TV Bio

## ONLINE:

Bioeco actual + Bueno y Vegano banner-a web-ean eta urria, azaroa eta abenduko newsletter-etan.



## 4ª edición de Be Veggie en Ficoba - Irún 3 y 4 de diciembre | La cita vegana de Euskadi



SOCIEDAD	4	ALIMENTACIÓN	8	EL BALCÓN VEGANO	16
¿Quién es Animal Rebellion?		Platos veganos nutritivos para el mes de diciembre		50 Aniversario de la Protectora de Animales de Mataró	

Impreso en papel ecológico y reciclado  
www.buenovegano.com  
Suscríbete Gratis

El Botiquín Natural. Convivir con una persona bipolar



[Leer Más](#)

El neurodesarrollo y la inmadurez neuromotora



[Leer Más](#)

**be veggie!** FESTIVAL 3 | 4 DICIEMBRE FICOPA, IRUN

Bueno y Vegano. Dieta vegana en el embarazo



Receta: Sticks de brownie cheesecake veganos



## Ecoticias: Banner-a web-ean

RECETAS ECOLÓGICAS Más noticias →

Mejores vinos ecológicos de Valencia  
2 de diciembre de 2022

3 | 4 diciembre FICOPA | Irún

Más noticias →

Porqué duelen los riñones  
29 de noviembre de 2022

Receta ecológica de brownies veganos  
17 de noviembre de 2022

Receta ecológica de brownies veganos - Ingredientes 2 tazas de nueces 2 tazas y media de dátiles ecológicos 1

**Vegetus (UVE-k editatzen duen online aldizkaria):** insertzio bat

## **Vegconomist**

- sponsored post eta 4 argitalpen
- banner-a web-ean eta newsletter-a



**Easy Organic:** banner-a web-ean

**Mi herbolario:** banner-a web-ean

**Vida natural:** banner-a web-ean

## **IRRATIA**

### **245 insertzio:**

- Euskadi Irratia
- Euskadi Gaztea
- LOS 40 (San Sebastian, Eibar, Bilbao, Vitoria)
- NRJ Biarritz
- Euskal Irratiak (Gure Irratia, Antxeta Irratia, Xiberoko Irratia, Irulegiko Irratia)

**10 inpaktu:** elkarrizketak honako irrati hauetan: Cadena Ser, Euskadi Irratia, Radio Nacional, Onda Cero, Antxeta Irratia eta France Bleu.



## IRAGARKIAK ETB1 ETA ETB2-n

Be Veggie-ren aurreko astean ETB1 eta ETB2 iragarki kanpaina bat egin da, 10" spot-en bitartez, ordutegi desberdinetan txertatu direnak. Kanpaina honekin 900.000 inpaktutik gora lortu dira.



## ONLINE PUBLIZITATE KANPAINA

Online publizitate kanpaina bat jarri da martxan, google inguruan eta publizitate programatikoa erabiliz, eta baita sare sozialetan (instagram eta tik tok) eta Spotify-n. Hauek dira kanpainaren emaitzetako batzuk:

INPRESIOAK	2.151.431
ERABILTZAILE BAKARRAK	664.812
KLIK-AK	16.666
CTR	0,77%

Kanpaina digitalak ezarritako helburua %34an gainditu du, eta kanpaina honen erantzun ratioa (CTR) nabarmena da ere.

# INPAKTUAK IDATZITAKO PRENTSAN

Be Veggie-k 25 inpaktu izan ditu prentsa idatzian, artikuluak eta aipamenen artean.



**Dra. Bes-Rastrollo. CEDIDA**

## PRESENTES EN BE VEGGIE, UNO DE LOS MAYORES EVENTOS VEGANOS

“Creemos que la información que se obtenga de este estudio internacional puede beneficiar en un futuro a otras personas veganas, a los profesionales sanitarios y a la sostenibilidad de todo el planeta”, confiesa la profesora de la Facultad de Medicina. Por ese motivo, los próximos 3 y 4 de diciembre el



**IRUDIA Irun**

## Azoka beganoa, bihar eta etzi

Ficoba Euskal Kostaldeko Nazioarteko Erakustazokaren jardura ezaguneneko bat izango da asteburuan: Be Veggie azoka. Bihar (10:00-20:00) eta etzi (10:00-19:00) artean dozenaka stand-ekin kultura beganoaren azken nobedadeak zertan diren azalduko dute, eta horrez gain, hitzaldiak, sukaldaritza tailerak eta bestelako asko izango dira Ficobaren areto nagusietan. Azokaz gehiago jakiteko joan honako webgunera: [beveggie.eus](http://beveggie.eus).



## «Reciclar es el último eslabón, tras reutilizar y reducir»

**Recicla-Birkizlatu.** Para mostrar alternativas a la ciudadanía, la asociación ofrecerá, hoy y mañana en el festival Be Veggie de Ficoba, cuatro talleres para elaborar cosmética natural

**ANA M. BEZDEDEROS**  
 «Reciclar es el último eslabón, tras reutilizar y reducir», afirma la presidenta de la asociación Recicla-Birkizlatu, Ana M. Bezdederos, durante una recepción en Ficoba.



## Mercedes Norte presenta esta tarde su libro 'Soy una Kelly'

La Asociación Cultural Gore Morada organiza hoy sábado, día 3, en el Espacio Padma Montero, la presentación del libro 'Soy una Kelly'.

**Mercedes Norte** presentará esta tarde su libro 'Soy una Kelly' en el Espacio Padma Montero.



## Todo un festival de sabores en Ficoba

**Be Veggie.** La cuarta edición de la feria vegana, con entrada gratuita, muestra este fin de semana en el



Todos los sabores, todos los más saludables, están presentes en Be Veggie.

**HOY POR HOY** sigue el programa especial desde Lugo, con Ángels Barceló

**Sociedad**

## Una nueva edición de Be Veggie llega a Ficoba

La propuesta de Be Veggie incluirá en esta cuarta edición espacios expositivos de la mano de 55 empresas expositoras con oferta de alimentación 100% vegetal



Borja Okazobai, delegado de Desarrollo Sostenible y Movilidad, y Mikel Gartzahago, director de la feria

**EL PROGRAMA DE HOY**

- 10:30. Charla "Tras las huellas del derecho animal".
- 11:00. Práctica de yoga.
- 11:15. Vaqueo para buena riza.
- 11:30. Charla con Itxaso Unzueta.
- 12:30. Mesa redonda sobre moda sostenible.
- 12:00. Taller de cocina "Descubriendo el Congo: un plato de arroz diferente".
- 14:00. Taller de cocina "Veganizando la italiana".
- 16:20. Charla "La vida color frambuesa, más allá de recetar animales".
- 17:30. Taller de cocina "Plata de trucha con frutos secos".



## RRSS

Hementxe Be Veggie-ko sare sozial nagusietan lortutako emaitza batzuk:

### INSTAGRAM


Instagram-eko komunitatean lortutako hazkundea Be Veggie 2021 geroztik %19,5koa izan da, 3.176 jarraitzailera iritsiz.

Hauek dira ekitaldi ospatu de bitartean lortutako emaitzetako batzuk:

- Publikatutako edukia 31.000 kontuetara iritsi da
- 560 kontu izan dute harremana Be Veggie kontuarekin
- Kontuaren batazbesteko **irismena (edukia ikusi duten pertsona kopurua)** egun bakoitzeko hau izan da, eduki motaren arabera:

- \* post bitartez : 17.681
- \* reel bitartez: 1.293
- \* storiak: 335,32

Be Veggie-ren Instagram komunitatean %83a emakumezkoak dira, %17a gizonak direlarik. adin talde ugariena jarraitzaileen artean 25 eta 44 urte artekoa da.



### TIKTOK

Aurten, TikTok-eko kontua sortu da, Be Veggie-ko bisitari potentzial askoren topagunea bezala identifikatu dugulako.

123 jarraitzailera iritsi gara Tik Tok-en, 919 bistaratzeko lortuz.



# BE VEGGIE 2022 IRUDIETAN









# ESKERRIK ASKO !

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA  
DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingurumena eta Oira  
Hidraulikoetako Departamendua



**ETORKIZUNA**  
**ORAIN**